

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 90/2023 Foru Agindua, otsailaren 10ekoa Onestea diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako 20/2022 Errege Lege-Dekretuan aurreikusitako laguntza eskatzeko prozedura (20/2022 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriena eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzekoa)**

Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurrien eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-Dekretuaren bidez, diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoei laguntzeko zuzeneko lerro berri bat sartu da.

Ordainketa bakarreko 200,00 euroko laguntza horren helburua da Ukrainaren inbasioak eragindako krisi energetikoak prezioetan izan dituen ondorio kaltegarriak arintzea gizarte izaerako beste prestazio batzuek estaltzen ez dituzten kalteberatasun ekonomikoko egoeretan, hala nola kotizaziopeko pentsioen, horien gehikuntza inflazioaren ildotik bermatzen baita; bizitzeko gutxieneko diru sarreraren, edo kotizazio gabeko erretiro eta baliaezintasun pentsioen egoeretan, kontuan hartuta azken bi kasu horiek dagoeneko aparteko igoera baten onuradun direla, aipatutako errege lege-dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Laguntza hori jasotzeko, halaber, baterako diru sarreraren eta ondarearen gehieneko kopuru batzuk ezartzen dira, etxean bizikide direnen arabera, laguntzaren onuradunen kolektiboak premia eta progresibitate printzipioak bete ditzan.

Ondorioz, foru agindu honen bidez, aurreko paragrafoetan jasotako laguntza eskatzeko prozedura arautzen da.

Nolanahi ere, ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan duten eta abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 74. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak izango dira laguntzaren onuradunak.

Aipatzekoa da laguntza ez dela enbargatuko edo konpentsatuko zerga zorrak azkentzeko bide gisa.

Ikusi da Zerga Araudiko Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau,

XEDATZEN DUT

#### 1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Foru agindu honen helburua da arautzea Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurrien eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko 27ko 20/2022 Errege Lege-Dekretuak 74. artikuluan xedatutako laguntza eskatzeko prozedura.

#### 2. artikulua. Onuradunak

Aurreko artikuluan xedatutako laguntzaren onuradunak izango dira ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan duten eta abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 74. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak.

**3. artikulua. Laguntza eskatzea eta ordaintzea**

1. Foru agindu honen 1. artikuluan ezarritako laguntzaren eskaera egiteko, inprimaki bat bete eta bidali beharko da. Inprimaki hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan izango dute interesdunek eskuragai, 2023ko otsailaren 15etik martxoaren 31ra bitartean.

2. Arabako Foru Ogasunak laguntza ordainduko du, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan eskatutako betekizunak egiaztatu ondoren.

Laguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, eta dirulaguntza emateko erabakia jakinarazitzat joko da transferentzia jasotzean, hargatik eragotzi gabe eskatzaileari jakinarazpena egitea.

3. Inprimakia aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabete igaro ondoren ordainketa egin ez bada eta laguntza ukatu dela adierazten duen jakinarazpena jaso ez bada, eskaera ezetsia izan dela ulertu beharko da.

4. Laguntza eskaera ebazten duen erabakiaren aurka berraztertze errekurtoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutako moduan.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 10a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**